URRUTI – HEGALDIAK PARAPENTEAN

Sariaren oinarriak:

Urtebeteko epea duzu bonua erabiltzeko.

Erreserba egiteko, adierazi eskaera zenbakia, hegan egingo duen pertsonaren izena eta gutxi gorabeherako pisua. Adierazi, halaber, zer egunetan egin nahiko zenukeen hegaldia.

Hegaldiaren eguna: Joan topagunera adostutako ordua baino bost minutu lehenago. Txartela, kirol zapatilak, galtza luzeak eta mahuka luzea eraman behar dira. Bideorik kontratatu ez baduzu, zeure kamera eraman dezakezu, edo sakelakoarekin grabatu. Bestela, irakasleari esan diezaiokezu hegaldia bideoan grabatuta eduki nahiko zenukeela, eta bertan ordaindu dezakezu (+25 €). Bideoa kontratatua baduzu, gogoratu zein irakaslerekin egingo duzun hegan. Zorabiatzeko joera baduzu, hartu biodramina bat. Gogorarazten dizugu garraioa ez dagoela prezioan sartuta; zuen autoa eta gureak erabiliko ditugu joan-etorrietarako. Eguraldiaren araberako jarduera denez, litekeena da atzerapenak gertatzea. Komunika zaitez gurekin WhatsApp edo Telegram bidez; askotan hegan edo gidatzen ari gara, eta ezin diegu deiei berehala erantzun.

Ez da onartuko hegaldia bertan behera uztea 24 ordu baino gutxiago falta direla. Gozatu zure hegaldiaz, seguru gustatuko zaizula.